

Noaqua!!

H A M A B O S T E K A R I A

1998ko ekainak 5 III. urtea


Usurbil, 44. Zenbakia



**Joan Mari
Torrealdairekin
hizketan**



Txerrimunik ordainetan



Zorionak **Luisito!** ekainaren 17an gure "aitatxitok" urteak beteko ditu. Ea ba denon artean ederki ospatzen dugun, tarta eta guzti! Etxekoak.



Ane Bengoetxea. Maiatzaren 29an 2 urte egin zituen gure sorginak. Aurreko alean atera behar zuen baina tira... Zorionak beranduago bada ere!



Zorionak **Idoia Udabe!** Ekainaren 9an 17 mende beteko omen ditun eta! (17??) Iritsi zain dagoeneko emakume plantak hartzeko "ordue". Beraz gonbidatuta natxion ezta? Zeure gixantearen partetik ondo pasau, preziosa...



Zure begiak ene maitia badute biek dir-dir ezta. Txokoaldeko amoranteen izenean Zorionak, **Jon!!**



Ander Izeta Goenaga. Ekainaren 2an 5 urte bete zenituen. Ondo pasako zenuen ezta? Zorionak etxekoien partez.



Ekainaren 4an izan da gure **Patxiren** urtebetetze eguna. Zorionak! Sasoi onean jarraitu dezazula. Etxekoien partez.



Zorionak **Arantxa Cisneros,** ekainaren 4an zure urtebetetze eguna izan zen eta. Espero dugu ongi pasa izana. Ea elkarrekin noiz botatzen dugun parrandaxoren bat. Kuadrilatarrak



Juan Manuel Zapiain, gure aitari ere, iritsi zaio ekainaren 2a. Zorionak eta jarraitu orain bezain alai. Etxekoien partez bihotz bihotzez 42 musu.



Juan Mari Bengoetxea. Maiatzaren 14an 36 urte bete zenituen. Ezkon eguna ere egun berean izan zenez zorion bikoitza. Zorionak!



Irati Arruti Vitoria eta **Patxi Arruti Zubiriak** ekainaren 2an urteak bete zituzten. Zorionak, ondo pasa zenuelakoan... musu handi bat. Etxekoak.



Zorionak ia usurbildar osoa dugun "Etxeta" eta bere laranja erdiari. "Etxetak" maiatzaren 29an bete zituen urteak eta Agurtzaneke ekainaren 4an beteko ditu. Ea ondo ospatzen dugun eta parrandaxoren bat botatzen dugun zuen kontura. Kuadrilatarrak.



Zorionak **Ainara Agirre.** Dagoeneko 21 urte beteko ditun ekainaren 9an. Erronda bat gonbidatetik ez haiz horren erraz libratuko. Kuadrilatarrak



Oihana Garagarza Urkia. Zorionak politta. Ekainaren 11an 16 urte beteko dituzu. Ea orain bezain neska jatorra izaten jarraitzen duzun. Muxu handi bat etxekoien partez

Hurrengo alea: **ekainaren 19an** Zorion agurrak eramateko epea: **ekainaren 15a**

Hildakoak



1998-5-29
Iñaki Flores Lizaso
19 urte
Atxegalde



1998-6-01
Balentin Zubiria
Iraola
82 urte
Aginaga

Jaiotzak

Jon Elustondo Aizpurua
(1998-05-10)
Aginaga

Iker Lopez Beloso
(1998-05-17)
Kaleberri

Maialen Iurretagoiena Lazkano
(1998-05-26)
Olarriondo



- Udala 37 19 51
- Udaltzaingoa 36 11 12
- Anbulategia 36 20 13
- Udarregi ikastola 36 12 16
- Agerialde ikastetxea 36 38 95
- Oiardo kiroldegia 37 24 98
- Zumarte musika eskola 37 15 94
- Etumeta euskaltegia 37 20 01

- Taxi geltokia 36 21 78
- D.Y.A. 46 46 22
- Gurutze Gorria 27 22 22
- Gure Pakea egoitza 37 32 28
- Gure Elkarte egoitza 37 17 51
- Arrate egoitza 36 63 40
- Eusko Tren informazioa 47 09 76
- **Noaia!** aldizkaria 36 03 21

Zer irizten?

**Argitaratzailea**

Noaua! Kultur Elkarte
Kale Nagusia, 37
20.170 Usurbil (Gipuzkoa)
Tlf. eta faxa: 943 36 03 21
E-mail: noaua@topagunea.jalgi.com

Zuzendaria

Olatz Altuna

Kazetariak

Ainhoa Azpiroz, Idoia Torregarai,
Josu Aranberri, Garikoitz Udabe

Kolaboratzaileak

Pedro Mari Matxain, Ines Kamino,
Leire Atxega, Iñaki Labaka, Iratxe
Begiristain, Amagoia Mujika, Xabier
Arregi, Pako Agudo, Alfontso Vidal,
Nieves Aranburu, Luis Aranalde,
Zalao Arnaiz, Maribi Arrospeide,
Agurtzane Solabarrieta, Joseba
Pellejero, Joxe Aginaga, Ainara
Uribe, Eider Jauregi, Olatz Leoz,
Agustín Esnaola, Izaskun Zubiria,
Olatz Goenaga, Izaro Aizpurua,
Joxe Loidi, Begoña Arriaga, Urko
Manterola eta Joxe Torregaray.

Administrazioa

Arantxa Usarralde, Aitor Pikabea eta
Nerea Kamino.

Erredakzio Kontseilua:

Olatz Altuna, Garikoitz Udabe, Jose
Jabier Furundarena, Iñigo Azpiroz,
Idoia Torregarai, Josu Aranberri,
Ainhoa Azpiroz.

Maketazioa eta diseinua

Susana Martín, Aitziber Elortza, Olatz
Goenaga eta Mertxe Gonzalez.

Dokumentazioa

Idoia Agirre eta Aintzane Aizpurua

Informatika

Pili Lizaso eta Karlos Aizpurua

Banaketak

Mertxe Jimenez, Txelo Vidal eta Iker
Muguruza

Elektrikaria

Iñaki Salsamendi

Sukaldaria

Joxe Mari Sarasola

Tirada: 2.300 ale**Lege-Gordailua:** SS-668-96**ISSN:** 1136-6818**Inprimategia:** Antza

Noaua! hamabostekariak ez du
bere gain hartzen aldizkarian adie-
razitako esanen eta iritzien erantzun-
kizunik.



Urruñako ikastola: herriko etxe- ak proiektua geldiarazi du

Gerard Urrutia

Urruñako ikatolako lehendakaria

1997ko abenduan, Eskola-
komisionearen proposamen
baten ondorioz, Urruñako herriko
kontseiluak ikastolaren eraikun-
tzaren aldeko bozka eman zuen.
Pilota plazaren ondoko lur
eremu bat hutsik uzten zuela
eta, eraikuntza bera ikastolaren
gain egonen zela erabaki zuen
orduan. Bestaldekik, eskola
berriari herriko beste eskola pri-
batuen funtzionamendurako
diru laguntza bera emane zuela
ere adostu zuen.

1998ko otsailaren 16an ikastola
eraikitzeke baimena eskuratzeko
dokumentu batzuk eskatzen
ziguten. Guk ezin ditugu planoa
eta hesiari eta inguruari buruzko
xehetasunak burutu, aitzin lur
eremuaren definitzea eduki
gabe, eta dokumentuak herriko-
etxearen eskuetan dira.
Auzapezak guri ematea baizik
ez da behar lanetan hasi ahal
izateko.

Martxoaren 16an auzapezak
hitz eman zuen lur eremuaren
mugaz arduratuko zela, baina
garki uzten zuen herriko-etxeke
hainbat aferetan abertzale
elkarteak errekursoekin segitzen
bazuen, bere baimena ez zela
izanen.

Xantaia hori onartezina eta
arrazoiz kanpokoa da, ikastola-
ren eraikuntza ikastolaren alde
egon baina berarekin zerikusia

ez duen elkarte batek egin
dituen ekintza judizialekin lotzen
baita.

Hautetsien bozkaren konfian-
tza genuelako, ikastola eraikitze-
ko dirua biltzeko kanpaina bat
bultzatu genuen duela hilabete
batzuk. Onartezina da, abendu-
ko bozkaren ondorik nola herriko
kontseiluak bere hitza kentzen
ahal duen modu antidemokrati-
koan. Herriko-etxeak ama-esko-
len erantzunkizuna du, eta posi-
ble ote du auzapez batek gure
haurren hezkuntza eta babesa
deuseztatzea? Gainera, eskola-
ren eraikuntzak ez luke deus kos-
tatuko herria eta herritarrei.

Orain, Urruñako ikastolako
gurasoak protesta ekintza irau-
korra aurrera eramatea erabaki
dugu, auzapezari 1997ko aben-
duko Herriko etxeke akordioa
bete dezan. Auzapezak berak
onetsitako eta eskola gaietara-
ko batzordeak proposatutako
akordio honen bitartez ikastola
eraikitzeke lur-eremua ematea
onartu zen.

Horretarako, egunero informa-
zioa eskaini eta laguntzak jaso-
tzeko gune bat antolatu dugu.
Jasotzen ari garen laguntzarekin
eta denon arteko indarrak batuz
auzapezak bozkatutako akor-
dioa betetzea eta eraikuntza
hasteko beharrezkoak diren agi-
riak sinatzea espero dugu.

Azala: Joan Mari
Torrealdai herriko
dema-plazan



Usurbilgo Udalak
diruz lagundutako
aldizkaria



Kultura sailak
diruz lagundutako
aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundiak
diruz lagundutako
aldizkaria

Euskal presoak



Euskal Herrira!



Nahi baina ezin

Ekainaren hasiera heltzen denarekin batera, ikasleok buru-belarri saiatu beharra dugu ikasketekin. Azterketak gain-gainean ditugu eta dexente irakurtzea edota ikas-tea egokitzen zaigu.

Hala bada, eta hala da, liburuak hartu, ukalondoak mahai gainean itsatsi eta etengabe aritu behar dugu lanean. Baina, etxean nahi adina kontsultagairik ez eta herriko liburutegira jotzea erabaki nuen zuzen-zuzenean, zerbait gehiago aurkituko nuen esperoan. Herritar batek argitaraturiko lanak bildu nahi eta ezin. Behar nuenaren arrastorik ere ez nuen aurkitu (bilatzen aritu arren).

Honekin guztiarekin kexu naiz euskara arloan ez baitago

gure hizkuntzak merezi duen bezainbeste; eta zergatik ez du udaletxeak gure kulturaren ezaugarri nagusietako bat den hizkuntza, euskara, behar bezala zaintzen eta defendatzen?

Herritar bat

Errespetoa, mesedez

Azken egun hauetan tristura nagusitu da Usurbilgo kaleetan. Ustekabeko ezbehar batek herriko gazte bat gure aldamenetik eraman digu, ustekabean, goizetik gauera, ia konturatu gabe. Ez noa istripuaz hitz egitera, ezta ere gazte bat bere onenean eramateak suposatzen duena agertzera. Baina hiletaren egunean antzeman nuen errespeto falta ezin daiteke aipatu gabe utzi.

Jende asko bildu zen hileta elizkizunean. Umeak, gazteak, gurasoak, zaharrak... inoiz ez bezala zegoen Salbatore parrokia, usurbildar gazte honek merezi zuen agurra izan zezan. Kale Nagusitik elizara sartzera-koan musika entzuten nuen, ez nion garrantzirik eman. Elizkizuna hasi aurretik, barrutik musika eta zalaparta nabaritzen nuen; kasurik ez. Hileta amaitu ondoren negar eta zotin artean hilerrira joaterakoan pelotalekuan musika jarrita zegoen, oso altu gainera. Aurretik pasatzerakoan ez zuten musika kendu, ezta egiten ari zirena alde batera utzi ere. Hori al da usurbildar hildako bati zor zaion begirunea? Hainbeste kostatzen al zen 15 minutuz edo ordubetez egiten ari zirena bertan behera uztea?

A. L.



Senideak elkarteak maiatzaren 19an hasi zuen enkartelada Gasteizen Ajuria-Enean aurrean presoak Euskal Herriratzea exijituz eta erakundeei inplikazio gehiago eskatuz. Astelehenean, ekainaren 1ean, usurbildarrei eta lasarteearrei egokitu zitzaizen bertan egotea.

ANDONI PINTURAK

Barnelanean. Espezializatua

Itxasku-Berri etxea Tel: 943 36 13 18
Usurbil Mobila: 939 70 08 67



**URTINEA
LORATEGIA**

Lore eta lore landareak

San Esteban
Tlf. 943 36 22 55

**EGIN ZAITEZ
NOAUA!KO
BAZKIDE!**



Joseba Zuloaga Lizaso

Arratzainen jaio zen orain dela 63 urte, sagardotegiaren ondoan. 25 urterekin Usurbila etorri zen bizitzera eta gaur egun Santuenean bizi da. Motorra duen gorpil-aulki batean ibiltzen da.



Arratzainen jaioa, Usurbila etortzen al zineten eskolara?

Hura xelebrea izaten zen. 8-9 urterekin hasi ginen eskolan. Usurbila joaterakoan lokatza eta lohia besterik ez zen egoten. Eskolara joan eta han maixu andaluz beltz txiki batek ematen zizkigun klaseak. Guk ez genuen ezer ulertzen, ez baikenekien erdaraz. Ulertzen ez genuelako buruan makilarekin jotzen zigun eta han gelditzen ginen bazterrean. Eskerrak gero Gertrudis hasi zen, bestela basoarekin zerbitzeko abildaderik ere ez genuke izango, orain ere ez dugu asko baina...

Zenbat urte arte ibili zinen eskolan?

12 urte inguru arte. Garai hartan "komunioa" egin behar izaten zen. Hura egin ezker eskolako izate guztia bukatzen genuen. Pazko igandearen hurrengo igandean egiten zen "komunioa", 12-13 urterekin. Komunioa egin ezker gizona eginga zegoenez eskola utzi eta baserrian jarduten genuen lanean.

Goizeko 6.00etako mezetara ere etortzen omen zineten.

Goizeko 6.00etako mezetara joan behar izaten genuen. Askotan, goizeko 5.00etarako Usurbilen geunden. Hileroko "kongregazioak" eta beste gauza askotara jeisten ginen. Infernuari beldur handia zitzaion garai hartan, beste gauzarik ez zen, infernua eta lana.

Hala ere zuk 15 urterekin gaixotasun larria izan zenuen.

15 urte eta hilabete batzurekin gaitz txar bat harrapatu eta gorputzaren erdi bat geldirik gelditu zitzaidan. Don Justo joaten zen ni ikustera. Gaitz hura izango nuela, beste hura... gauza

asko esan zituen hark. Nik, ordea, senideak ezin ikusi. Gaitza kutsagarria izan zitekeelakoan ama eta aita bakarrik ikusten nituen. Urtebete baino gehiago pasa nuen zutik jarri gabe.

Gorputzaren eskubiko alde ezin mugitu, oztopo asko izan zenituen?

Lan eske joaten nintzen baina inork ez zidan kasurik egiten. Zubietako apaizak jendea kolokatzan zuela eta harengana joan nintzen, baita alferrik joan ere. Eman zidan arrazola lotsagarria zen, esateak ere ez du merezi. Irasuegi alkatearengana ere joan nintzen, baina harek ere ez zidan ezertan lagundu. Ez noa esatera zer erantzun zidaten.

Azkenean, ordea, lana aurkitu zenuen ezta?

Lasarten ardo-almazen bat jarri nuen baina ez zitzaidan ondo atera. Artzatan ibili nintzen gero, Nafarroa aldean. Zorionez, asko kostata bada ere, "Estructuras metalicas Garain" laupabost urte egin nituen zaindari moduan; 1969ko maiatzean hasi nintzen lanean. Gero itxi egin zuten.

Santuenean gustora?

Bai, oso gustora. Hemen ibiltzen naiz batera eta bestera. Elkartean, Tragoxkan hor ibiltzen gara. Jendearrekin harremanetan jartzeko arazorik ez dut izaten. Musean, jokoan aritzea baino, hitz egiten egotea gehiago gustatzen zait.

Euskal Herritik kanpora irten al zara inoiz?

Bai, horixe. Benidorren, Saloun, Torremolinosen, Rias Bajasen... elbarrien elkartearekin leku askotan izan naiz. Aurten, ondo banaiz, Portugalera joateko asmoa dut uztailean. Orain dela urte dexente, laupabost senidek, 25 egun inguru pasa genituen Argentinan, han zegoen iloba bixitatzen.

TABERNA
BAZKARIAK
ETA AFARIAK
Satuena 23
Telf.: 943 36 27 34



TABERNA



**7 t'erdietan
irekitzen dugu**

**Goiz goizetik
gosariak**

Irazu kalea, 12
Tlf: 943 36 02 17

**TXARO ARTZE
ILEAPAINDEGIA**

**Buru-azalaren zainketa
Ile-apainketa**

Etxebeste, 3 Tel. 943 37 16 85

TXOKOALDE

Olatz Goenaga



Txokoaldeko kolore mugimendua

Santueneko zubiaren eraberritze lanekin Txokoalden kotxe mugimendu haundiagoa dabil azken egun hauetan. Horrez gain, Goikoerrotara dijoan bidea ere itxita dago, hodiak jartzen ari baitira leku horretan. Beraz, Urdaiagatik Txokoalderako bidea derrigorrez, Aldatxa baserriaren ondotik egin beharra dago. Hortik abiatu eta hor ere Saltxipi aurreko bidea zabaltzen ari dira. Toki guztietan obretan, ezer bukatu gabe, bide estua eta aldapatsua. Guzti honi arriskurik ikusten ez duten gidari asko batu behar.

Bestalde, maiatzean jaunartzeak izan direla eta, azken astebukaera hauetan, Txokoaldeko hiru jatetxeak beteta egon dira eta kotxeak uzteko arazoak ere ez dira gutxi izan.

Obrak utzi eta Akerra gaztetxera egin behar dugu bisita. Maiatzean hainbat kontzertu antolatu dituzte Txokoaldeko gazteek. Azken astebukaeran Arlax

eta Kolore Biziak taldeen kontzertua izan zen. Ez zen jende ugari azaldu baina giroa primerakoa izan omen zen.



KALEBERRI

Begoña Arriaga



Espaloian pasatzeko lekurik ez

Bordatxo aurreko errotonda egin zutenean kiroldegira joateko bidea txukundu zuten. Lehen Gaztañaga eta alboko sastraka artean zegoen pasabidetik joan behar izaten genuen. Berritze lanak amaitu zituztenetik, berriz, oinezkoentzat jarri zuten espaloian ibiltzen da jendea gora eta behera.

Espaloian bertan, zuhaitzak ere jarri zituzten apaingarri gisa. Hasieran txikiak ziren, baina denborarekin etengabe hazten ari dira. Zuhaitz horiek gero eta aterki lan haundiagoa egiten badute ere, oinezkoentzat toki gutxiago dago. Gora eta behera, kiroldegira, ikastolara dijoazenak, umearen zain dau-

denak... jende ugari ibiltzen da eta jendeak errepidera atera behar izaten du, espaloian lekurik ez dagoelako. Eta zer esanik ez ume kotxearekin, aterkiarekin edo beste zerbaitekin doazenak. Hauek ez dute ezertarako lekurik izaten. Espaloia oinezkoentzat da eta zuhaitzak politak badira ere leku gehiegi hartzen dute.

Ez da hau, kiroldegiko inguruko nire kexa bakarra. Anbulategi berria egin zutenean dena txukun-txukun utziko

zutela uste genuen. Urteak aurrera dijoaz eta inguru horren egoera ez da aldatzen. Ea ba noiz amaitzen dituzten hemengo lan guztiak. Poz ederra hartuko dugu!



ATXEGALDE

Ikasturte amaierako kontuak

Amagoia Mujika



Aurtengo ikasturtea amaitzera doa. Ekainean sartu gara eta amets gaitzuen garaia iritsi da, badakizue azterketak eta hori guztia. Udarregi ikastolak, aurten inoiz baino beranduago, bere eguna ospatuko du datorren ekainaren 14an.

Izango da buila eta zalaparta. Ikasleak haruntz eta honuntz ibiliko dira, kolore desberdinetako taldeetan joku desberdinetan parte hartuz. Txikienek, Oiardo kiroldegian jaialdi mundiala eskainiko dute, beti bezala. Beraz, Atxegalden ere poza eta alaitasuna ziurtatuta dago.

Bien bitartean, beste ikastetxea, Agerialde, datorren urtean itxiko dutenaren zurrumurrua zabaldu da. Dirudenez jende gutxi dago bertan ikasten eta datorren urtean ez da bertan ikasterik izango. Nahikoa leku geldituko da orain, bai herriko taldeentzat eta baita ikastolarentzat ere.

Azkenik auzoko mutil gazte bat zoriondu behar dut. **Xabier Herasek** Espainiako Judo



Txapelketan bigarren postua lortu berri du Madrilan. Gipuzkoako eta Euskadiko txapelkunak maila bikaina erakutsi du. Zorionak auzotar guztion partez.

KALEZAR

Hain ezagunak ez diren beste eskailerak

Begoña Zubiria



Juan Jose Eneako eskailera udalarenak izango dira hemendik aurrera. Etxe honetatik N-634 errepideraino jeisten den eskailera betidanik herri pasabide modura erabili izan da Kalezarren. Nahiz eta etxe honetakoak izan eskailera hauen jabe naturalak betidanik egon da irekita pasabide hori. Izan ere zuetako askok ez badaki ere Kalezarko eskailera nagusiaz gain hau beste hau ere erabiltzen dugu kalezartarrok.

Horregatik, Juan Jose Eneakoek eskailera hauek udalaren ardurapean gelditzeko proposmena egin zuten eta

udalak eskaintza hori onartu du orain dela gutxi. Beraz, eskailera honen mantenuaz udala arduratuko da hemendik aurrera eta garbitu ere udalak garbitu beharko du.

Festak ere gainean ditugu. San Juanetarako bizpauru aste besterik ez dira gelditzen. Motorrak berotzen jarri beharko ditugu. San Juan eguna asteazkenean

tokatzen da aurtengoan, baina auzoko jaiak aurreko asteburuan hasiko dira, hilaren 19an. Inoiz baino lehen datozkigu aurten.



SANTUENEA

Udala erne!

Joan den astean auzoan nengoela, hiru auzotar hurbildu zitzaizkidan, beraien kexak azaltzera. Konpondu behar diren gauzak komentatu zizkidaten eta Noaua!n idazteko eskatu. Auzotarren kexak ez dira entzuten eta non azaldu beren kexak, beren iradokizunak? galdetu zidaten. Horregatik, Noaua aldizkari honen bidez auzotarren ahotsa entzun arazteko erabiltzea eskatu zidaten.

Kexak argiak dira:

- Uholdea pasa zela bada urtebete eta auzoko iturriak urik gabe edukitzea ez dago eskubiderik. Ur mozketaren bat gertatuko balitz, nora joan behar-

ko litzateke ur bila? Eliz ondoko iturrira, agian?

- Plaza ondoan dagoen haurren parketxoak ez ditu segurtasun neurriak betetzen. Jolasteko tresnen azpian, goma gutxi eta gaizki jarriak daude. Haurren batek, buruan ebakiren bat egin ezkerorengana joan? Udaletxera indemnezio bat eskatzera?

- Zorrotzeko zubiaren konponketak beharrezkoak direla ez du inork zalantzan jartzen. Baina, alde aurretik hartu behar diren neurriak hartzea ere beharrezkoa da. Autoak, autobusak, furgonetak, ... nondik etorri behar dute? Txokaldetik, agian? Baina, alde

aurretik bideak konponduta egon beharko lukeela uste dugu. Horrela ez denez, autoen konponketen fakturak udalari pasa behar ote dizkiogu?

Usurbilgo udalaren buru zarenten alkate jaun eta beste zinegotziak, zutabetxo honetan azaltzen diren kexak, aintzakotzat hartuko dituzuela espero dut eta jendearen beharrak betetzea. Iradokizun modura, auzotarren eritzia entzuteko, auzoetan iradokizun buzoiak jartzea.

Herriaren zerbitzura zaudetenok, herriaren ahotsa lau urtetik behin eskatzen duzuenetz, egunero beren eritzi eta ahotsa entzutea ez litzateke gaizki

Agustin Esnaola



URDAIAGA

18 egunak pasa dira

Obrak, zorioneko obrak! Guztiok aztoratuta gabil-tza azken aste hauetan. Urdaiagan lan egiten dugunok badakigu zer den bai Zorroazako zubia kotxeentzat itxita egotea. Gora igotzeko buelta haundia eman behar dugu, Txokoalden ere bidea itxita dago... oztopoa besterik ez dugu.

Eta ez gu bakarrik, nola uste duzue dabilzala bezeroak? Denok berdin, zubia pasa eta Urdaiagara igo beharrean Zubieta edo Txokoaldetik joan behar, hau marka hau! Zubietatik abiatu eta bidean, zer aurkituko eta, trailer bat,

kamioi haundi bat. Bihurguneak ezin zituen hartu! Han ere itxaron egin behar.

Okerrena zera da: zubi aldera joan eta oso langile gutxi dardela lanean. Lanik egiten al dute ba? Udaltzainek lanak hasi eta 18 egunetara kotxeentzako pasabidea irekiko zutela esan ziguten. Nire kalkuluen arabera, hiru bider zazpi 21



dira eta lanean hasi zirenetik 3 aste pasa dira dagoeneko. Beraz, matematikan gaizki ez banabil 21 egun 18 baino hiru egun gehiago dira. Guztiok erotu baino lehen konponduko ote dute zorioneko zubia!

Maribi Arrospide



AGINAGA

Datorren ikasturtean lokal berria

Aginagako eskolako haurrek lokal berriak izango dituzte datorren ikasturtean. Azken urte honetan udala, Aginagako elizako junta, hez-



kuntza saila, gurasoen elkar-
tea... harremanetan izan dira
arazoa konpondu nahian.
Azken urteetan eraikuntzaren
egoera tamalgarria ikusita, zer-

bait egin
beharra ikusi
zuten eta
azkenean
badirudi
bide onetik
doazela
gauzak.

Udala, hez-
kuntza saila
eta
Aginagako
Elizako junta
adostasune-

Iratxe Begiristain



ra iritsi dira. Aginagako elizako
lokaletan hiru gela, komunak
eta trasteroa erabili ahal izan-
go dituzte auzoko haurrek.
Egokitze lanak udalak ordain-
duko ditu bi milioi inguruko
aurrekontuarekin. Lokal hauen
alokairuagatik udalak 40.000
pezeta emango dizkio juntari
eta beste hainbeste zaharren
egoitzako zerbitzuak hobetu
eta ziurtatzeko.

Auzoko txikiak gustora egon
daitezke. Hezetasunez beteta-
ko lokala utzi, itokinez ahaztu
eta egoera hobean eman
ahal izango dituzte klaseak.
Orain juntak akordioa sinatzea
besterik ez da falta.

ZUBIETA

Eskuzko Txapelketak Zubietan

Aurten ere ospatuko da
Zubietan eskuzko txapel-
keta. Zubietta Pilota Elkartek
antolatutako bigarren edizioa
izango da. Bertan, bi maila
izango ditugu federatu arloan;
nagusiak eta kadeteak.
Txapelketa hau berezia dugu,
plaza librean jokatzen baita.
Hegoaldean ezezaguna den
espezialitate hau, sasoi betean
dugu oraindik iparraldeko pla-
zetan. Bere berezitasun nagu-
sia, ezker paretarik ez izatea
da, pelota horma bakar bati
botatzen zaiolarik.

Txapelketa hau ekainaren
erdialdean hasiko da eta finala
Santiotan jokatuko da.


Ez pentsa zubietarrok begirale
hutsak izango garenik, eskuz
jokatzeko jendea ere bai bai-
taukagu; beste txapelketa bat
jokatzen ari da herri mailan,
pelota goxuarekin noski. Bede-
ratzi hirukotek eman dute
izena, eta lehengo larunbate-
an jokatu zen hasierako kanpo-
raketa. Maila ederra
eskaini ziguten sei
pelotariak, tanto ede-
rrak eskainiz, nahiz eta
fisikoki oraindik tope-
topera ez daudela
igartzen den. Hala ere,
txapelketa aurrera
joan ahala, seguru
gaude puntu-pun-
tuan izango ditugula.

Mikel Bengoetxea



Segurola-Beñat-Gorria hiruko-
teak, **Enrike-Joseba eta**
Akilinok osatzen duten taldeari
irabazi zion 30-27 emaitzarekin.
Aipatu, gazteen mailan, 6 hiru-
kote ere badauzkagula
Zubietan. Beraz, badaukagu
nahiko festa hemendik aurrera
Zubietako plazan.





Erroizpeko presa garbitzeko lanak aurrera doaz

Joan den urteko ekainaren lehen uholdeek eragin zituzten kalteak konpontzen ari dira pixkanaka-pixkanaka. Erroizpeko presa txukuntzen laister hasiko dira.

Azken asteetan, kamioiak gora eta behera ibili daitezten, bidea garbitzen aritu dira. Uholdeen eraginez, Erroizpeko presara joateko bidea oso egoera txarrean gelditu zen eta lanak burutu ahal izateko bertan zeuden lurjauziak kentzen aritu dira, ibilgailuarekin ezin baitzen presara joan.

Garbiketa lan hauek amaitzean hasiko dira Erroizpeko presa lehen zegoen bezala uzteko lanak. Presan dauden harri guztiak ateratzeaz Otegi eta Gaztañaga enpresa arduratuko da eta obra honen aurrekontua 47 milioi pezeta-koa da.

Erroizpeko presatik ateratako guztia (harriak, hondarra,



lurra...) Etxealdiako bide berria egiterakoan betelanerako erabiliko dira.

Izan ere, Gipuzkoako Foru Aldundiko teknikariek baiezkoa eman diote udalak egin asmo duen Bizkarretik Etxealdiara bide berriari. Foru Aldundiak, berriz, bigarren

fase batean Etxealdiatik Aginaga aldera joateko, N-634 errepidera, irteera egiteko aukera izango du. Azken irteerara honen bidez Ostape parean dagoen Aginagarako irteera kenduko litzateke eta ibilgailuek Kale Nagusi osoa ez lukete zeharkatu beharko.

AKORDIOA SANTUENEO KUIULUEN LURREN INGURUAN

Santuenetik Urdaiagara joateko hartzen den bihurtzearen eskubian dauden lurren jabeek, udalak egindako proposamena onartu dute. Desjabetza epaitegiak expropiazioaren prezioa erabaki bitartean, udalak diru kopuru bat emango die. Honela, epaia eman aurretik lurjabeetako batek ikuilua egin ahal izango du beste leku batean.

UDAL BRIGADARAKO LAU PEOI KONTRATATUKO DIRA

Lau hilabetetan herriko festetarako eta beharrezkotzat jotzen diren beste lanak egiteko, lau hilabeterako lau langile hartuko ditu udalak. Usurbilen jaiotakoak, bost urtez bizi izandakoak edo 1996ko maiatzaren 1a baino lehenagotik bertako bizilagun direnek, eka-inaren 11a baino lehen aurkeztu behar dituzte eskaerak. Zozketa hilaren 12an egingo da.

PARIS ETXE ATZEKO PARKERAKO PROPOSAMENA

Paris etxe atzeko parkea egiteko egin den ideia lehiaketan Hondarribiako talde baten proiektua aukeratu du udalak jarritako tribunalak. Hondarribiko taldearen ideia izan da tribunalarentzat gustokoena eta ideia hau proposatu dute sei proposamenetan egokiena. Orain udalak plenoan erabaki beharko du zein ideia erabiliko duten.

**SERIGRAFIA
TANPOGRAFIA**

LOSU

Ugaldea poligonoa 36 - 2^a Esk
Usurbil - Gipuzkoa

943 37 19 54

Arkume erretegia

Arkumea parrilan

Haurrentzako parkea



Aparkalekua

Barazkiak parrilan

Etxeko berezitasunak

Ospakizunak eta despedidak

Zumartegi industrialdea
Aitezarra kalea, 4

USURBIL Tel.: 943 36 60 49

**XABIER
EDARITEGIA**

- Pintxo aukera bikaina
- Gosari bereziak

Aritzeta, 2 ☎ 943 36 19 73

**INDVSTRI ETA
IRAGARKI SERIGRAFIA
KAMISETEN INPRIMAKETA**

Azken uneko
berria

Agerialde ikastetxea itxi egingo da

Agerialde ikastetxe publikoan ez da eskolarik emango datorren urtean. Hala erabaki zuten joan den maiatzaren 29an hezkuntza saileko ordezkari batek, udaleko hezkuntza arloko **Karmele Hevia** zinegotziak, gurasoek eta irakasleek Agerialden bertan egin zuten bileran. 1998-99 ikasturterako 16-19 ikasle bakarrik matrikulatu dira eta egoera honen aurrean datorren urtetik aurrera Agerialde ikastetxea itxi egingo da. Matrikulatu ziren ikasle gehienak Landaberrira joango dira, beste batzuk Lasarteko Sasoeta ikastetxera eta Udarregi ikastolara.

Orain arte Agerialde ikastetxearen egoitzarekin zer egingo duten ez dakite oraindik. Udarregi ikastolak, momentu honetan kalezarren dauden eskolaurreko haurrak datorren urtean egoitza honetara ekartzea eskatu du. Iaz ere eskatu zuten, baina hezkuntza sailak ezezkoa



eman zuen. Ekainaren 5ean egingo duten bileran erabaki daiteke zerbait.

Usurbilgo erbiaren bila eta mural eguna

Ekainaren 14an ekitaldi bikoitza egingo da Harane futbol zelaian. Alde batetik, Usurbilgo erbia nor den erabakiko da, horretarako 100 metrotan, korrika, marka onena egin beharko da. Beste aldetik, aldagelen bi aldetara dauden hormetan lau mural egingo dira.

Nor izango ote da Usurbilgo erbia? Nork egingo ote du Harane futbol zelaian egin den pista berrian 100 metrota-ko markarik onena? Aitzaga elkarteak antolatuta, guzti

horri erantzuna eman nahi zaion ekitaldia burutuko da Haraneko futbol zelaian. Banaka, guztira 100 metro egin beharko dira korrika eta korrikalari bakoitzak kronometraturako bi saio egiteko aukera izango du.

Bestalde, egun eta toki berean egingo da mural eguna. Harane futbol zelaiko aldagela etxearen bi aldetako hormak itxuraldatzeko asmoa dute herriko artista batzuek. **Joseba Berriozabalen** esanetan, "hormigoizko horma

gehiegi ez ote zegoen herrian komentatzen hasi ginen gure artean. Margotuta politagoak izango lirakeela eta poliki-poliki honelako hormetan muralak egin zitezkeela pentsatu genuen. Herrian arlo horretan aritzen direnekin harremanetan jarri eta ideia ona iruditu zitzaion. Horregatik egin dugu aurrera". Ekainaren 14an, lau mural egingo dira futbol zelaiko hormetan eta gero herriko beste leku batzuetan ere muralak egiten jarraitzeko asmoa dago.

ORBELDI

MARKEL OLAIZOLA
ASEGURU AGENTEA / Zbk. 200009



GENERALI

Aseguru Konpainia

Mota guztietako Aseguroak
zure zerbitzurako

Aritzeta, 1 Tlf: (943) 37 18 07
20170 Usurbil (Gipuzkoa)

MAHUKA



GAZTE DENDA

*Udarako zure arropa
aurkituko duzu!*

Extebeste kalea,3 - Tlf. 943 36 11 06

PATRI

JATETXEA

Eguneko bazkariak
eta afariak

Nagusia 6, 20170 Usurbil
Tel.: 943 36 27 25 (Gipuzkoa)



Joan Mari Torrealдай: "Datozen 25-30 urteko euskararen garapena moztera datoz"

Joan Mari Torrealдай idazlea Forukoa da jaiotzez baina Usurbildarra izatez. Honela erantzuten omen die nongoa den galdetzen dien guztiei. Jakin aldizkariko zuzendaria, Euskaldunon Egunkariako Kontseilu Editorialeko Zuzendaria, soziologia eta Zientzia Politikoetan doktorea... gizon jantzia da kultura mailan. "El libro negro del euskara" bere azken lanak izugarriko arrakasta izaten ari da. Guk berarengana jo dugu liburuaren nondik-norakoak jakin asmoz.

"El libro negro del euskara" da zure azken lana. Zer irakurri deza-kegu liburu honetan?

XVII. mendetik hasita, aintzina-goko dokumentuak badaude ere, gaur arte estatu espainolean eta frantsesean euskara suntsitseko eta baztertzeko egindako ahaleginak bildu ditut. Ez da nik idatzi dudan zerbait, urteetan zehar biltzen joan naizen dokumentuen transkribapena baizik. "Francoren garaian soldaduskan eta eskolan euskararen kontra zerbait bazego-

ent, baina dosi txikitán. Euskara ez da sekula persegitu". Honelakoak askotan entzun izan ditugun arren, Euskararen liburu beltzarekin hori horrela ez dela demostratzen da. Euskararen aurkako historia beltza etengabekoa izan da eta da oraindik.

Hilabetean agortua, bigarren edizio bota duzue oraintxu... Zergatik horrelako arrakasta mota honetako liburu batek?

Bi arrazoi nagusi aurkitzen ditut. Bata, bigarren mailakoa: liburuaren aurkezpen fisikoa edo nola dagoen aurkeztua. Liburu oso irakurterraza da. Esaldiekin bakarrik dago egina, nahiz eta hauek gero historikoki, kronolojiaren bidez, eta esaldiaren aipamena eginez kontestualizatu. Eta lehen mailakoa bestea: gaia. Gaia bera garrantzitsua da urteetan zehar agintetik eta estamendu kulturale-tatik euskarari zer tratamendu eman zaion ikusteko. Egitura alde-tik, bide luzerik egin gabe bihotzera iritsi naiz eta gai aldetik berriz momentua garrantzitsua izan da.

Eta zer tratamendu eman izan zaio euskarari?

Euskararen kontra konstante bat egon da urteetan zehar. Errepresioaren bidez eta presio sozial eta kulturalaren bidez hizkuntzaren baliorik eza azpimarratzu autogorrotua sortzerainoko konstantea. Honi garrantzia gutxi eman izan diogu askotan, baina sekulako inportantzia du. Gauza bat da, "gaztelania izango da hemendik aurrera eskolako hizkuntza bakarra" esaten duen lege bat egotea, horrek sekulako eragina du. Hala ere, hortik aparte presio sozialak izugarriko garrantzia duela azpimarratu nahi nuke.

"Euskarak ez du ezertarako balio, euskara ez da gai kulturarako, euskararekin ibiltzeak desprestijiatu egiten zaitu, ez da hiriko hizkuntza..." honelako erasoekin hizkuntza hori ez da gehiago transmititzen. Gurasoek haurrei ez die erakusten, azken batean sufrimendu tresna izan dena ez diete seme-alabei pasa nahi...eta abandonatu egiten da.

Tranpa batean erorita egon al gara orduan?


Euskaraz mintzatzen den populazioa %20-25a izatera iritsi denetan gerokoek libreki abandonatua izan dela esaten dute. Aurreko guztia kontuan hartu gabe etorkizunaren aurrekari bihurtu nahi dute, eta hor dago tranpa. Nik memoria bizitu, historia gogoratu nahi izan dut egiten diguten tranpa horretan ez erortzeko. Historia alde batera utzita, momentu honetan ere badago halako eraso bat, ez dakit antolatua den edo zein neurritan den antolatua, norik gidatua den edo gidatua den ere ez dakit, baina iazko udatik hasita badago.

Lehen erasoak, orain ere bai. Ez al da betikoa euskararen kontrako eraso hori?

Neurri handi batean lehengoa errepikatu egiten da eta nire liburuak argi erakusten du hori. Orain erasoan dabilzanak esaldi horiek esaten dituzten lehengoak direla uste dute, oso orijinalak direla, baina liburuako 200 orrialdeak irakurritakoan gero datorrena aurrekoaren errepikapena dela konturatzaren zara. Uste dute, gainera, kultura berria, aurrerapena eta Europa berriaren izenean hitz egiten ari direla eta aurretik beste batzuk gauza bera egiten zuten Espainiaren batasunaren izenean, Frankismoaren izenean etab.

Guiz hau politika jakin baten bidez gidatua izan daiteke?

Horren susmoa badago. Ez da kasualitatea gertatzen ari dena. Urtebete oso gogorra daramagu. Oraingo guztiak zentsore modu-noak dira, Lazkao Txikiren marrazki



bizidunak aztertzeko ere eskatzen ari dira eta! Egiten ari diren presioa izugarria da, gogoratu AEKren inguruan egin dutena, Kili-kiliri egin izan diotena... Errealitate bat hartu eta sobredimentsionatu egiten dute, lupa jarri, berceiek nahi dutena haunditu eta gainerako guztia desagertu egiten da.

Zer lortzen dute guzti honekin?


Euskararen mundua susmopean jartzea. Mundu iluna, mundu zikina. Hor denetik dago, terroristak hortik sortzen dira, ikastolak susmopean daude... Guzti hori esaten dute batzuk, gustora entzuten dute besteek eta horrek mundu oso ilun eta arriskutsu bat elikatzen du. Honela, euskarak duen zabalkundea eragotzi egiten dute, euskararen datozen 25-30 urteko garapena moztera datoz goitik behera. Hori da guzti honen azpian dagoena.

Zuk liburuan jaso dituzun erasoak irakurrita, oinarri berdina dute guztiak?

Abiapuntua desberdina izanda ere jomuga berdina dute, arrazoi batengatik edo bestearengatik euskara ahultzera eta euskararen erabilera, prestijioa, modernotasunaren aukera eta promozioa kentzera iristen dira. Frankismo ez zuen euskara mundutik kentzeko borrokatu, urrutiko baserrietan mintzatzera onartzen baitzuen. Min egiten duena hizkuntz politika da, edo euskara hizkuntza nazional bezala deklaratzearekin lortu nahi dena: euskaldunen hizkuntza izatea bere ondorio guztiakin, 24 ordu euskaraz bizi ahal izateko moduan. Ez bakarrik etxean, Usurbilgo plazan... ikastolan, unibertsitatean eta komunikabideetan ere bai. Horrek ematen du mina. Lehengo aurkariak eta oraingoak hor bat egiten dute.

Zer lortu nahi zenuen liburu honekin?

Liburu honekin gure euskalzaletasuna testeatu nahi nuen. Katalunian sekulako arrakasta izaten dute nirea bezalako liburuek, hizkuntzaren estudioek ere bai. Horrek, niretzat, gauza bat erakusten du: hori kontsumitzen duen herriak badu bere buruaren kontzientzia. Zapaldua kontsideratzen



da, injustizia dagoela uste du, hizkuntza ezagutu nahi du... Euskal herrirari dagokionez, zalantza haundia nuen nik. Hemen egun batetik bestera desagertu egiten dira, bai komunikabideetan, liburutegietan. Nire buruari esaten nion: hain erraza izan da, honek ez badu funtzionatzen euskarekiko dugun kontzientziak ez du sakontasun handirik.

“Lana aurkitzeko euskara jakitea beharrezkoa izango da hemendik gutxira”. Esaldi horretan sinisten duzu?

Euskarak aurrera egin dezan beharrezkoa izatea ezinbestekoa da eta horretan tentsioa galdu egin dugu. Lehen euskara ez zekien zerbitzari bat aurkituko ez zenuen lekuan orain oso erraz aurkitzen duzu, gutxien uste duzun tokian. Kanpainen dabilzanak zera esaten dute: “*eso de la euskaldunización fue una falsa alarma*”. Esaldi hori oso esanguratsua da. Momentu batean sinistu egin

zuten, baina gero konturatu dira ezetz. Berriz ere, %25era. Euskararen aurkako kanpaina horrek bere bidea egiten badu oso egoera latzean geldituko gara.

Libururako bilduma egiterakotan, sorpresa beltz haundiak topatu dituzu?

Bai, batzuk bai. Urteetan historiari buelta asko eman dizkiot gauza baten bila, bestearen bila, eta aurkitzen nituenak bildu egiten nituen. Orain ez naiz gogoratzten orduan zer sorpresa hartzen nuen. Hala eta guztiz ere azken aldian aurkitutako testu batzuk badira eta bi aipatuko nituzke: 1861ean Santo Domingoko obispoak orduko justizi ministroari idatzitakoa, arazo erlijiosoan ikuspegi politikoa planteatzen du, euskara zabaltzen bada etorkizunearan arazoak izan ditzakeela Espainiak. Bestalde, **Pio Barojak** euskararen kontra honelako testuak zituenik ez nuen pentsatzen, euskararen modernitatea ez dela posible diskuitzen du. **Unamunok** 46 urtean urtetan koherentzia osoa mantendu du euskararen kontra, espainolismoa defendatzeagatik guztia.

Eta azken urteetako testuetan?

Sorpresa edo amorrua, ez dakit zer sentitzen dudan Euskaldunen Egunkarian **Aurelio Artetari** egindako elkarrizketan euskarak txiki-teorako bakarrik balio duela esaten duenean.

“Usurbilen oso gutxitan ikusiko duzun idazlea”

Joan Mari Torrealdai Usurbilen bizi da orain dela zazpi urte ingurutik. Herriko kaleetan, berak esaten duen moduan “plaza bueltan”, ez zenuen askotan ikusiko. “*Usurbila lo egitera bakarrik joaten naizela esan daiteke. Goizean goiz irten eta gauean itzuli*”. Hala ere usurbilgo lurretan dauden mendietan asko ibiltzen omen da. Herriko kaleetan gutxi ibiltzen bada ere, inbertsioak eginak omen ditu, “*nire seme-alabak, hor ibiltzen dira eta andrea ere usurbildarra dut*”. Beste zerbaite ere esan zigun: “bakarrik bizitzekotan Iparraldean biziko nintzateke, umeak sozializatze-ko, ordea, Usurbil oso herri egokia da.

Sagardotxo maitea, edari paregabea...



Sagardoa izan zen alkate Usurbilen joan den maiatzaren 24an. XVII. Sagardo egun honetan sagardoa probatu asmoz jende ugari bildu zen goiko plaza eta inguruetan. 45 sagardotegi desberdinetako 5000 litro inguru banatu zituzten herriko botatzaile gazteek goiz eta arratsaldez. "Sagarretik sagarrondora" izeneko erakusketa ere egon zen. Interneten sagardoari buruz dagoen guztia ikusteko aukera ere bai, eta azken urteetan bezala, muztioa egin eta han bildutakoan artean banatu zen. Sagardo botatzaileen lehiaketan, berriz, **Kerman Rekondo** izan zen garailea.

Pello Arregiren ustezko hiltzailea aske utzi dute

Apirilaren 24tik Basauriko kartzelan egon bada ere, joan den maiatzaren 20an epailearen aginduz aske utzi zuten **Hipolito F.B. Pello Arregiren** ustezko hiltzailea. Hilketa gertatu eta hilabetera atxilotu zuten barakaldoarra eta hurrengo egunetan zenbait herritarrek ustezko hiltzaile bezala ezagutu bazuten ere (nahiz eta guk 42. alean **Ana Mari Zumetak** ezagutu zuela jarri honek ez zuen ezagutu), epaileak aske uztea erabaki du. Ustezko hiltzaileak lapurretan parte hartu izana ukatu du atxilotu zuten egunetik. Lapurretan parte hartu ondoren bitxidendaren aurrean atxilotu zuten beste pertsonak, **Antonio G.G.k**, Martuteneko kartzelan jarraitzen du.




Iñaki Flores gaztea istripuan hil da



Maiatzeko azken asteburua beltza izan da Usurbilen. Joan den maiatzaren 29an, gaueko 12.30ak aldera Ford Escort eta Opel Kadett batek elkar jo zuten N-634 errepidean Txikierdi parean eta honen ondorioz bigarren kotxean gidariaren ondoan zihoan **Iñaki Flores Lizaso** 19 urteko usurbildar gazteak bizia galdu zuen. Iñaki eta **Gorka G.M.** gidariak Aratz erretegiko sukaldean aritzen ziren eta lana amaitu ondoren etxera zihozen. Gorkak Iñaki Usurbila zekarrela gertatu zen istripua, Orereta aldera zihoan **Mario J.E.**ren kotxea bere bidetik irten eta bi gazteak zihozan kotxea jo zuenean.

KOADERNA EZAZU NOAUA!

1. Bil itzazu **1etik 33 bitarteko aleak** eta aurkibidea. faltan baduzu guri eskatu.
2. **Lizardi eta Laurok** dendetara eraman itzazu aleak eta bertan egingo dute kuadernatze lana (Tapak bertan daude).
3. Kuadernaketa **beste nolobait** egin nahi duenak tapak *Noaua!*n eskura ditzazke.



TXIRIBOGA
TABERNA

pintxoak, bokatak
eta plater konbinatuak

Irazu kalea, 3 Tel.: 943 37 00 13

TELEFONOAREN BEDERATZI ZENBAKIAK

Datorren ekainaren 6tik aurrera telefonoz deituzerakoan bederatzi zenbaki markatu beharko dira derrigorrez. Betiko sei zenbakiez gain probintzia bakoitzeko aurreko hiru zenbakiak ere jarri egin beharko dira, Ekainaren 6an, goizeko 1.00etatik aurrera. Egun horretatik aurrera betiko sei zenbakiak markatuta deitu ezker ez da dei hori gauzatuko eta bederatzi zenbakiak markatu behar direla esaten duen ahotsa entzungo da ekainaren 20a bitartean.



Usurbilgo E.K.T eta Donostiako LABen artean IBM markako hiru ordenadore bidaliko dituzte Kubara laister batean. La Habanako probintzian dagoen Hospital Pediatrico de Tararánera. Bertan, Chernobilgo hondamendiaren ondorioz gaixotutako 16.000 ume baino gehiago tratatu dituzte azken bost urteetan eta minbizia tratatzeko krema berezia ere asmatu dute. Orain arte idazmakina zaharrak erabiltzen dituztenez, artxibo lanak egiteko etab. erraztasunak eman nahi zaizkie 3 ordenadore hauen bidez.

ZAHAR EGOITZA INAUGURAZIOA

Zahar egoitza berria ireki zutenetik aste batzuk pasa dira. Eguzkitzaldean zuten egoitza utzi eta Gaztañagazpi aldean dute orain bere txokoa. Lanak amaitu bezain azkar ireki zuten eta ez zuten inauguraziorako denborarik izan. Hilabetea pasa ondoren egingo dute hasierako ekitaldia. Datorren ekainaren 21ean zahar egoitza berria izango duzu zita. Bertsoak, hitzaldia... inauguraketa ekitaldia egingo baita igande horretan.



Usurbilgo Piper Elkartea ez da aurten aurrera aterako. Elkarte modura produktuak komertzializatzeko iaz izan zituzten zailtasunak ikusita enpresa sortzea erabaki du. Elkartean zeuden sei piper ekoizleetatik lauk sortu dute enpresa eta **Usurbilminak S.L.** izango da piper enpresa berri honen izena. Udalak, piper elkarteak zituen maisu etxeko azpiko lokalak utziko dizkio.




Salbatore elizan **lehen jaunartzeak** izan ziren Joan den maiatzaren 31n. 1989. urtean jaiotako herriko haurrek egin zuten komunioa maiatzaren azken igandean. Guztira 32 izan ziren lehen aldiz jauna hartu zutenak, iaz baino zazpi gutxiago. Hauetatik 25ek euskaraz egin zuten (joan den urtean 33k) eta zazpi euskaraz (1998an seik).



Kima

MASAJE LEKUA

Kirol masajea eta masaje terapeutikoa
Xabier Carbayeda eta Goyo Martin



Igandetan ganba-ziri mundialak!

Judo kirol elkartearen 10. urteurrena

Usurbilgo Judo Kirol Elkarteak hamar urte bete ditu aurten. Hasi zenetik gaur arte lorpen garrantzitsuak izan ditu taldeak eta etorkizuneko kirolari asko eman ditu. Gaur egun, usurbildar gazte asko kimonoa jantzi eta gimnasia joatera animatzen da. Judoa beste aukera bat izan daiteke futbolaren garai honetan.

Duela hamar urte judoa kirol ezezaguna zen Usurbilen, gaur egun, berriz, umeak, gazteak... usurbildar ugari dabil Usurbilgo Judo Elkartearen. Batzuk kirol honetako trikimailu guztiak ikasten ari diren bitartean, besteak seme-alaba edota iloben

jarraitzaile sutsu bihurtu dira.

Ohizkoa da 6-7 urterekin eskolaz kanpoko ihardueraren bat aukeratzea. Batzuk musika eskolara jotzen dute, beste batzuk dantza taldera edo pelotara... eta batzuk judoaren aldeko apustua egiten dute, gero eta gehiagok egia esan. Seguruena aukeraketa honetan zerikusia duela telebistak, badakizue Ninja dorkaek eta antzekoek...

Aukera hori egin dutenetatik asko urrutira iritsi da judoaren. Adibidez, maiatzeko azken asteburuan, hiru usurbildar Madril aldera joan zitzaizkugun judoko Espainiako txapelketan parte hartzera. **Mikel Martin,**

Andoni Aizpurua
eta **Xabier**

Herasek estatuko judoka onenak izan zituzten aurrean, eta azken honek bigarren postu garrantzitsua lortu zuen, zilarrezko domina beraz.

Honez gain Usurbilgo Judo Kirol Ekartea ezaguna da Euskadi guztian, iaz Euskadiko elkarte onena izan zelarik. Gainera zenbait judoka usurbildar "etorkizuneko kirolari" izendatu dituzte.

Aurten elkarteak lortutako sariak

asko dira, esaterako; Gipuzkoako txapelketan hamazazpi urrezko domina, zilarrezko hamalau eta brontzezko zazpi lortu zituen, eta Euskadiko txapelketan urrezko bederatzi, zilarrezko bost eta brontzezko lau. Espainia mailan ere makina domina lortu dituzte judoka gazteek.


Bestalde, Samboan aritzeko aukera ere bada elkartearen. Samboan judoan baino askatasun gehiago dago, judoan mugak eta debekuak nabariagoak dira. Aurtengo Euskadiko Sambo txapelketan hogeitazortzi urrezko domina, hamazazpi zilarrezko eta brontzezko lau lortu ditu taldeak.

Argi dago usurbilen judoak baduela etorkizuna, lortutako dominak ikusi besterik ez dago. Gainera munduan zehar bidaiatzeko aukera onada. Adibidez aurten Usurbilgo judo elkarteak Portugal, Frantzia, Bulgaria eta Yugoslaviako txapelketetan parte hartu du.

Gure judoken trebezia ikusi nahi duenak aukera onada dauka 10. urteurrena dela eta antolatutako txapelketan. Txapelketa hau Oiardon ospatuko da ekaineko azkenengo astean.

Zorionak elkarteari bere hamargarren urtebetetzean eta luzaroan jarrai dezala judokak zailtzen.

Amagoia Mujika



Arg: Ekaitz


Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia, 2 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL



Ekaitz

Bideo eta Argazkiak

Usurbil

Tlf 943 36 14 87

OIARTZUN



Gipuzkoa txapeldun pelotan

Udarregi ikastolako **Jon Urazustabarrena**, **Patxi Bengoetxea** eta **Ugaitz Gurrutxagak** Gipuzkoako eskolarteko pelota txapelketako lehen postua eskuratu zuten maiatzaren 24an alebin mailan Zarautzen.

Donostiako bailaran garaile izan ondoren, Gipuzkoako beste bailara batzuen kontra jokatuta eta finalerako sailkatzea lortu zuten. Finalean, Oiartzun eta Azpeitiko hirukoteak garaitu eta lehen postua eskuratu zuten.



Arg.: Ekaitz

Aginaga Sagardotegia Kontxan

Aurten ere Aginaga Sagardotegiak ez du huts egin. Sagardo eguna ahaztu eta Kontxan kopako finala jokatuta zuten joan den maiatzaren 24an. El Turista taldea izan

zuten aurrean, baina usurbildarrek 3-1eko garaipena lortu zuten. Lehenengo faseetan ez ziren fin aritu, baina gero kopan ez diete aukerarik eman gainontzeko taldeei.

Emaitzak

Futbola

Maiatzak 23-24

Gwendoline 2 - Usurbil F.T 3 (2.R.)
Urnieta 1 - Usurbil F.T 0 (ju.)

Eskubaloia

Maiatzak 23-24

Egia B. M. 21 - Usurbil 25 (2.N.)
Egia 24 - Usurbil 37 (ju.m)
Donibane 21 - Usurbil 28 (ka.m)

Maiatzak 30-31

Usurbil 23 - Donibane 20

Saskibaloia

Usurbil 35- Zumaiako 63
Askatuak 66- Usurbil S.T 30

Areto futbola

Elgoibar 4 - Xabier Edar. 1
Xabier Edar. 2 - Hosfrinor 6

Hondartzako futbola


Aginaga Sag. 3 - El Turista 1

Pala Txapelketa

Justy-Txilibita 25 Martzel-Arruti 18
Txamuto-Leko 25 Jon-Jokin 16
Santxo-Koldo 25 Troia-Ikutza 17
Haritz-Oidui 25 Ibarreta II-Sarasua 20
Iñaki-Joxean 25 Arantxa-Loidi 17

Laburdurak

R.: errejionalak **ka.:** kadeteak
N: nazionala **n.:** neskak
ju.: jubenila **m.:** mutilak



Zure kirol arropa eta material guztia!


ARRUTI
harategia



Badugu igeriketa taldea



Ainhoa Makazaga



- Hernaniarra
- Oiardo kirolde-
giko monitorea ige-
riketan



Usurbilen badago igeriketa talde bat. Ez da federatua, eskolartekoa baizik. Oiardo kiroldegia ireki zenetik urte batzuk pasa badira ere, iaz egin zen lehen aldiz eskolarteko igeriketa talde bat sortzeko ahalegina. Udarregi ikastolaren izenean zenbait txapelketetan parte hartu badute ere, igeriketa eskola moduan antolatuta dago. Joan den urtean "Zarautz" sarian baka-rik parte hartu zuten, aurten ordea, Donostia aldeko eskualde mailako beste txapelketa batzuetan ere aritu dira usurbildar gazteak.

Aurten 15 neska-mutil izan dira astearte eta ostegunetan kirolde-
giko igerilekuan entrenatzen jar-
dun dutenak. Inoiz edo behin
egun horietan arratsaldeko zaz-
pietatik zortzietara igerilekuan ibili
bazarete edo kristalaren atzetik
begiratu baduzue, han ikusiko
zenituen gure igerilari gazteak,
uretara jauzi, zenbait bira eman,
berriz ere kanpora...

Hiru mailatan banatuta dabil-
tza: infantiletan 6 igerilari daude,
denak neskak, alebinetan, 7, sei
mutil eta neska bat eta benjami-
netan 2, biak neskak. Bederatzi
neska eta sei mutil guztira
Usurbilgo ordezkari moduan igeri-
leku desberdinetan ibili direnak.

Bizkarreko arazoak dituztenean,
medikuek igeri egitea gomenda-
tzen die gaztetxo askori. Igeriketa
munduan honelako kasu ugari
izaten da. Hasieran ez dira gusto-
ra etortzen, baina denborarekin
gustatu eta txapelketetan parte
hartzera iritsi ere, iritsi dira. Gure
taldean ere bada horrelako kasu-
ren bat.

Iaz igeriketa talde honetan hasi
zirenak aurten ere gure artean
izan ditugu. Batzuk gazteegiak
dira oraindik, baina beste
batzuek laister erabaki beharko
dute datorren urtean zer egin
nahi duten.

Gaur egungo umeak ez dira
kirol batean ibiltzera mugatzen,
astean zehar bi edo hiru kirol des-
berdinetan aritzen dira. Igeriketan
dabiltzanak ere berdin. Uretan
alde batera eta bestera ibiltzeaz
gain, futbola, eskubaloia, pelota,
gimnasia erritmikoa... beti badute
beste zerbait. Igeriketan jarraipe-
na izatea litzateke politena, baina
beraiek aukeratuko dute gustoko-
en duten kirola. Igeriketa ere pro-
batu dute eta orain badakite zer
den.


Datorren urtean talde federatu
bat sortzea ere burutik pasa zai-
gu. Gaztetxoek, igeriketan jarrai-
tzeko asmoa balute, talde hone-
tan jarraipena emango litzaioke.

Zumarte musika eskolarekin musikaz blai!

Dagoeneko aurtengo ikasturteari bukaera emateko ordua iritsi da eta horregatik ekainaren 13an ospatuko den ekitaldi bereziari buruz argibideak eman baino lehen, urtean zehar Zumarte Musika Eskolako talde desberdinak eskaini dituzten emanaldien errepaso txiki bat egin nahi dugu.

Talde hauek musika eskolan irakasten diren 12 itresna desberdinez osatuta daude: pianoa, eskusoinua, klarineta, tronpeta, tronboia, saxofoia, perkusioa, flauta, bibolina, alboka, txistua eta kitarra, beraz, bertan dagoen aukera ez da txikia.

Ikasturtea irailean hasi bagenuen ere, azaroan, Santa Zezili (musikoen eguna) ospatzeko, antolatu zen lehenengo kontzertua eta bertan musika eskolan dabilen ikasle txikienek parte hartu zuten. Ondoren, Zumarte Abesbatzak eskuratu zuen maila ikusita, "Antigua Abesbatzak" lehiaketan parte hartzea erabaki zen, entzulegoa eta epaimahaiaren bigarren saria lortuz. Azken urteetan gero eta maila handiagoa hartzen ari da gure abesbatza. Martxoan, Catalina de



Erauso I.P-k Donostian antolatzen dituen Musika Hamabostaldiko kontzertuetan eta apirillean Euskal Herri mailan Donostian ospatu zen Kantata 98-an ere abestu du. Horrez gain, ibilbide berri honi jarraipena eman nahian eta itxura berritze aldera, abesbatzarentzat jantziak egiten ari gara.

Ekitaldi hauen ondoren, maiatzean Kontzertu



Pedagogikoak antolatu ziren. Aurten, Orio eta Lasarteko Musika Eskolekin egin den trukaketa izan da berezitasuna. Lasarten, Orion eta baita Usurbilen ere Zumarte Orkestrak jo zuen eta era berean herri hauetako musika eskoletako taldeak ere Usurbilen eskaini zuten beren ekitaldia.

Baina guzti hau urteko lanaren errepaso modura aipatu badugu ere, ikasturteari bukaera emango dion **jaialdi bereziaren** berri eman nahi dugu. Jaialdi hau, Oiaro kiroldegian egingo da ekainaren 13an, larunbata, gaueko 22.30etan. Bertan, Zumarte Musika Eskolako talde desberdinak parte hartuko dute eta urte osoan egindako lanaren isladaz izatea nahi genuke. Ekitaldi honetara guztiok gonbidaturik zaudete eta bertan herriko gazteak musika mailan urtean zehar egindako lana entzun ahal izango duzue.



Zumarte musika eskola

Ikasle, irakasle eta gurasoen eguna

Udarregi ikastolak 30 urte bete ditu aurten. 1968an, zailtasunez betetako garai batean, lehen pausoak eman zituen haur jaio berri hura heldua bihurtu zaigu. 1997-98 ikasturtea amaitzera doanean, aurten ere Udarregi ikastolaren eguna badatorrela eta egitarau zabala prestatu dute.

30 urte bete ditu, bai, ikastolak, baina ikastolaren eguna ez da urtero-urtero ospatu izan. 1987-88 ikasturtean aldaketa garrantzitsua eman zen Udarregi ikastolan: Kale Nagusiko egoitza utzi eta horrenbeste urtetan amestutako ikastola berrian ekin zioten ikasturteari. Ez zen inauguraziorik izan, ez behintzat ikasturtearen hasieran. Izan ere, 1988ko maiatzaren 7a arte itxaron behar izan zuten ikastola berriaren inaugurazio festa egiteko.

Urte hartatik aurrera urtero ospatzen da ikastolaren eguna. Dagoeneko 11 urte pasa dira eta urtero-urtero izan du, maiatza edo ekainean Udarregi ikastolak bere eguna. **Juanjo**



Gomez, Udarregiko ikastolako zuzendariaren esanetan, "urtean zehar ikasle, irakasle eta gurasoen egun bat antolatzea ona izaten da eta ikastolaren egunaren helburua horixe da. Ikastolaren eguna bat izaten da, igandea, eta hori aitzaki hartuz herriari zuzendutako kultur aste bat egiten dugu".

Ikastolaren egunaren aitzakian egiten den kultur astearen egitura ez da asko aldatu urte-

hauetan. Hitzaldiak, ikastolako haurrek eskainitako musika ekitaldiak eta ikastolaren egunean egiten den festak osatzen dute aste horren bizkarrezurra. Ikastolaren egunean, berriz, goizean ikasleak izaten dira protagonista nagusiak. Lehen hezkuntza eta DBHko ikasleek jokoak izaten dituzte bitartean, haur hezkuntzako haurren jaialdiak arrakasta izugarria izaten du.

Josu Aranberri

UDARREGI IKASTOLAREN ASTEKO EGITARAUA

Ekainak 9. asteartea: Hitzaldia

Gaia: Zer egin dezakegu indarkeriaren aurrean, euskararen kontrako erasoaren aurrean? Herriaren zatiketaren aurrean, elkarrizketarik gabeko jarrera itxien aurrean?

Hizlaria: Jesus Mari Mujika, Santo Tomas Lizeoko Batxilergoko Etikako eta EUTGko Antropologiako irakaslea.

Ordua: 17.30etan.

Lekua: Udarregi ikastolako laborategi gelan.

Ekainak 11. osteguna: Kontzertua

Nortzuk: 5 urteko eta LH5 mailako ikastaldeen eskainitakoa.

Ordua: 19.00etan.

Lekua: Elizan.

Ekainak 12. ostirala: Bertso saioa

Bertsolariak: Maialen Lujanbio eta J.M. Irazu.

Nori zuzendua: DBHko ikasleei.

Ordua: 15.30-16.30.

Non: Erdiko Aretoan.

Ekainak 14. igandea: Ikastolaren eguna

9.00etan: Txistularien esna-deia.

9.00-11.30: Lehen hezkuntza eta DBHko ikasleen jokuak.

11.00-13.00: Ikasleen eskulanean erakusketa.

12.00-12.45: Haur hezkuntzako haurren jaialdia kiroldegian.

14.00: Herri bazkaria Usurbilgo frontoian. Ondoren trikitilariak.



Sagardo egunean ez zen dena sagardoa izan. Sagardo egunari hasiera eman baino orduerdi bat lehenago Noauako bazkideak urteroko argazkia atera genuen.

Erremedioen txokoa

Tenia edo solitaria botatzeko

Hesteetako barne-parasito hau botatzea ez da erraza. Hala ere erremedio honekin saiatu. Baratzuri buru bat ozpinetan egosi ondoren kataplasma edo enplastoan bildu eta urdail gainean jarri. Gau osoan eduki, ea apopiloa botatzen den.



Lehiaketa



Zazpi hauetatik hiruren izenak asmatu behar dituzu.

Asmatzaileen artean **Sekañan** bi lagunentzako afaria zozketatuko da

Aurreko alean Bordatxo aurreko errotondak zer izen zuen galdetu genuen, baina errotonda honek oraindik ez du izenik. Asmatzailerik ez da izan.

EKAINAK 5 ostirala

- Pala txapelketa partiduak. Arratsaldeko 20.30etan hasita:
Jon-Jokin / Aierbe-Tomas
Pelex-Josu / Loidi-Jenaut
Justy-Txilibita / Eulate-Ibarreta I
Ibarreta II -Sarasua / Enrike-Matxain

EKAINAK 6 larunbata

- Eskuz pelota haur eta gazte mailako Usurbilgo eskuz pelota txapelketako partiduak goizeko 10.00etan.
 Arretxe-Aurkia/ Mendizabal-Iraztorza (alebinak)
 Canseco-Iturralde/ Labaka-Alberdi (Alebinak)
 Otaegi-Zelaia/ Zurutuza-Iraztorza
 Alkorta-Sorrarain/ Mikel-Igor (Inf)
 Elola-Ropon/Leonet-Iradi (Inf.)
 Auzmendi-Yubero/Soraluze-Altuna (Inf.)
 Aseginolaza-Xabier/ Errazkin-Iraeta (kad.)
 Dorronsor-
 Aldasoro/Mendizabal-Zubeldia
- Arratsaldeko 15.30etan.
 Goenaga-Huerta/Zelaia-Elurbe
 Bereziartua-Markos/Artola-Maiz
 Urdanpilleta-Mariezkurrena/
 Garmendia Irazustabarrena (Inf)
 Aranburu-Larrarte/Zubillaga-Oiartzabal (Inf.)
- Pala txapelketa partiduak. Arratsaldeko 20.30etan hasita:
Arruti-Arruti / Ixidro-Patxi
Eneko-Josu / Joxemai-Joxemari
Martzel-Arruti / Iñaki-Joxean
Haritz-Oidui / Troia-Ikutza



Harane futbol zelaian "futbol 7" txapelketa jokatzeko ari dira herriko gazteak. Benjaminak, alebinak, infantilak, kadeteak eta neskek, joan den maiatzaren 23an hasi zuten txapelketa. Larunbatean, goizez eta arratsaldean jokatzeko dira partiduak Harane futbol zelaian

EKAINAK 12 ostirala

- Pala txapelketa partiduak. Arratsaldeko 20.30etan hasita:
Jon-Jokin / Aierbe-Tomas
Pelex-Josu / Loidi-Jenaut
Justy-Txilibita / Eulate-Ibarreta I
Txamuto-Leko / Pelex-Josu

EKAINAK 13 larunbata

- Arratsaldeko 15.30etan hasita eskuz pelotan haur eta gazteen Usurbilgo txapelketaren final laurdenak.
- Pala txapelketa partiduak. Arratsaldeko 20.30etan hasita:
Santxo-Koldo / Enrike-Matxain
Mikel-Andoni / Joxema-Joxemari

Eulate-Ibarreta I / Martzel-Arruti Haritz-Oidui / Troia-Ikutza

- Andatza K.K.E.ak antolatuta Pirineoetara irtenaldia, Neovillera. Ekainaren 13a eta 14a pasatzera. Ekainaren 8an bilera egingo da Andatza K.K.Earen lokalean arratsaldeko 20.00etan. Oharra: Irteera honetan kanpinetan egingo da lo.

EKAINAK 14 igandea

- Goizeko 10.00etan hasita eskuz pelotan haur eta gazteen Usurbilgo txapelketaren final laurdenak

**ZURE IZEN-ABIZENAK EUSKALDUNDU NAHI BADITUZU,
ETORRI ZAITEZ GUREGANA, GUK LAGUNDUKO ZAITUGU!**



Kale Nagusia 37
Telf.: 943 36 03 21



USURBILGO UDALA

EUSKARAREN AHOLKU BATZORDEA



EUSKAL HERRIAN EUSKARAZ

A genda

EKAINAK 5 ostirala

- **Juan Mari Torrealdai idazleak hitzaldia** emango du **Aitzaga elkarte**an. Bertan, kaleratu berri duen "Euskararen liburu beltza" liburuaz hitz egingo du. Arratsaldeko 19.70etan Aitzaga elkarte

- Gaur hasi eta ekainaren 7 arte "**Lore artean bolilo eta gantxiloz eginiko lanak**" erakusketa zabalik egongo da Udarregi zaharrean. Goizez 12.00etatik 14.00etara eta arratsaldez, 18.00etatik 20.00etara.

EKAINAK 8 astelehena

- **Euskal Herria Askatu**ren konzentrazioa. 20.00etan.

EKAINAK 9 asteartea

- Ikastolaren egunaren inguruko kultur astearen barruan, **Jesus Mari Mujika Sto. Tomas Lizeo**ko irakaslearen hitzaldia. Gaia: **zer egin dezakegu indarkeriaren aurrean, euskararen erasoaren aurrean? Herriaren zatiketaren aurrean, elkarrizketarik gabeko jarrera itxien aurrean?** Udarregiko laborategi gelan 17.30etan.

EKAINAK 10 asteazkena

- Udarregi zaharrean eta arratsaldeko 20.00etatik aurrera **Elkarriren berraurkezpena gaia** jorratuaz hitzaldia, "Eraiki, Bake Prozesurako proiektua".

EKAINAK 11 osteguna

- 5 urteko eta LH5 mailako ikastaldeen eskainitako **konzertua**. Salbatore parrokiaren 19.00etan.

EKAINAK 13 larunbata

- Ekainaren 16an ikastolako bideogelan Elkarrik antolatuta **zine foruma** afalondoren. Begoña del Teso zine kritikari ezagunak aurkeztutako "**The Boxer**" pelikularekin.

- Zumarte Musika Eskolak ikasturteari amaiera emateko antolatu duen **jaialdi berezia**. **Oiardo kiroldegian** 22.30etan.

EKAINAK 14 igandea

- Harane futbol zelaiko pista berrian **100 metrotan zeinek marka onena jarri**. Aitzaga Kultur Elkarteak antolatuta.
- **Mural pintaketa** Harane futbol zelaiko hormetan. Eskuak zikindu nahi dituzne guztientzat aukera. Goiz eta arratsaldez.

EKAINAK 15 astelehena

- **Euskal Herria Askatu**ren konzentrazioa. 20.00etan.

LANPOSTUAK

- ✓ Usurbilgo udalak lau peoi kontratatuko ditu udaran lau hilabeterako. Eskaerak aurkezteko epea ekainaren 11a eduerdiko ordubata.

KOMUNIO BAZKARIA ANTJETAN

1947an "komunioa" hartu zutenen bazkaria antolatu da Antxeta jatetxean. Ekainaren 21ean egingo da. Izena emateko epea irekita dago eta ekainaren 15a baino lehen deitu beharko da **Antxeta jatetxera**.
Telf. 943 37 03 44

IKASTOLAREN EGUNA EKAINAK 14AN

9.00etan: Txistularien esnadeia.
9.00-11.30: Lehen hezkuntza eta DBHko taldeen jokuak.
11.00-13.00: Ikasleen eskularen erakusketa.
12.00-12.45: Haur hezkuntzak haurren jaialdia.
14.00: Herri bazkaria herriko frontoian.
Ondoren trikitixa.

XXII.SANTIXABEL BERTSOPAPER LEHIAKETA

Gaia: "Ni animalia bat naiz"

- Parte hartzeko Usurbildarra izan behar da.
- Lanak ekainaren 27a baino lehen bidali behar dira Udarregi zaharrera.
- Lanak inoiz argitaratu gabeak izan behar dute.
- Gutxienez 8 eta gehienez 10 bertso.

BAZKIDIE TXARTETEA

5.000 PEZETA URTE OSORAKO

Noaua!
HAMAROSTEKARIA

Izena: _____
1.Abizena: _____
2.Abizena: _____
Helbidea: _____
Herria: _____
Tfnoa: _____
Kontu Korrontea (20 digito): _____

412

bazkide ditu Noauak.
Zu ere egin zaitez
bazkide

Usurbilgo

OFIZIOAK

zure eskura dituzu

Aroztegiak

BEREZIARTUA

Egurrezko eta aluminio-egurrezko
leihoak
Izpira etxea
Aginaga
☎ 943 37 15 71 - Faxa 36 01 59

GONSABI S.L.

Ugarte, 9
Kalezar
☎ 943 37 10 61

IBARGOEN, JOSE RAMON

Neurriko altzariak
Errotaberri kalea, 3 - Osinalde
☎ 943 36 14 48 - 36 31 24

IKUTZA, JOSE MARI

Ugarte, 4
Kalezar
☎ eta faxa 943 37 12 21

MANSO, ABILIO

Ugarte, 10
Kalezar
☎ 943 37 05 73

OLASAGASTI, KETXU

Gurutze etxea
Kaleberri
☎ 943 36 12 13

Iturgintza

LATAILLADE, IÑAKI

Ariztitxo kalea, 8
Atxegalde
☎ 943 36 33 48 - 36 26 35

ORBEGOZO, JAVIER

Iturgintza, gasa eta berogailuak
Bizkarre kalea, 1 - 1.esk.
Kaleberri
☎ 943 37 29 37 - 36 59 26

OSTAPE

Ostape etxea
Kalezar
☎ 943 36 16 95

PORTULARRUME, XEBERO

Kale Nagusia, 10
Kaleberri
☎ 943 36 46 37

Elektrizitatea

IZAGIRRE, MIKEL

Goiz-Argi etxea, 37
Kalezar
☎ 943 36 50 95

ARGILAN

Instalakuntza elektrikoak
Kontzeju zaharra, 13
Kaleberri
☎ 943 37 02 74

Igeltseritza

ARANZAZISTROKI, ANDRES

Igeltseritza eta pintura
Aldapatxo etxea
Kalezar
☎ 943 36 24 71 - 36 05 50

ELORZA, JOSE ANTONIO

Pintaketa, igeltsua eta eskaiola
Galtzaragaña 2 - 2.B
☎ 943 37 34 70

ERRAZKIN C.B.

Kale nagusia, 1
Kaleberri
☎ 943 37 26 79

Santuenea, 8

Kontzeju zaharra kalea, 1
Kaleberri
☎ 943 36 51 25

Eskaiola

NORIEGA, EUGENIO

Erdiko kalea, 12
Atxegalde
☎ 943 36 56 65